

KABIAN HIZKUNTZA BERDINTASUNA KUDEATZEKO JARRAIBIDEA

LABURPENA

MISIOA

Aldundiaren Plan Estrategikoan jasotako dago lehenespenez, bestelakorik adierazi ezean, euskara erabiltzea bultzatzea. KABIA Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentura atxikita dagoen organismo autonomoa izanik, bere sorreratik txertatuta dauka hizkuntza berdintasunaren ikuspegia.

KABIAREN misioa mendekotasun egoeran dauden adineko pertsoneri egoitzetan eta eguneko zentroetan zaintza eta arreta ematea da. Kalitatezko zaintza eta arreta ez da ulertzen hizkuntza berdintasuna txertatu gabe.

Hortaz, KABIAREN hizkuntza irizpide eta helburu orokorrak dira:

- Zerbitzu hizkuntza erabiltzaileak hautatutako bi hizkuntza ofizialetako batean izango da, betiere, euskararen erabilera sustatuz.
- Lan hizkuntza euskara izango da nagusiki.

IRIZPIDE OROKORRAK

Eta irizpide nagusi hauetan zehazten da:



ERABILTZAILE ETA FAMILIEN HIZKUNTZA HAUTUA

- Erabiltzailearen sarrerako balorazioa egiterakoan, ibilbide linguistikoa jasoko da: lehen hizkuntza eta egungo komunikazio hizkuntzak identifikatuko dira, baita senideek ahoz zein idatziz erabili nahi dutena/dituztenak ere (desberdinak izan daitezke).
- Gipuzkoan ofiziala ez den hirugarren hizkuntza bat izanez gero, kontuan izango da.
- Informazio hori hala behar duten langile guztiek eskura izango dute.



AHOZKO HARREMANAK

- Harrera egiterakoan, Kabiako langileek euskaraz egingo dute lehen, bigarren eta azken hitza, aurrez aurreko zein telefono bidezko harremanetan, komunikazioa oztopatu edo eteten ez bada, edo erabiltzaileak gaztelaniaz aritu nahi duela adierazten ez bada. Kasu horretan, esamolde ulergarriak eta/edo bietara emanak tartekatuko dituzte, betiere, egoera deserosoak saihestuz.
- Bisitaria ezezaguna bada eta eman beharreko azalpena luzea, zein hizkuntzan aritu nahi duen galdetuko zaio.
- Elebidunak ez diren langileek ere lehen eta azken hitza euskaraz egingo dute. Erabiltzailea euskaraz aritu nahi duela jabetuz gero, lankide elebidun bati eskatuko diote laguntza.



DOKUMENTUAK

- Barne zein kanpo dokumentuak eta idatzizko komunikazioak euskaraz sortuko dira eta, behar denean, gaztelaniara itzuliko dira (publikatzeko...).
- KABIAk ohiko dokumentuen zerrenda egina du, eta bertan jasotzen da zein hizkuntzatan egongo den bakoitza.



IRUDI KORPORATIBOA

- KABIAren zentroetako errotulu eta zigilu nagusiek, logoa, zentroaren izena eta herria eramango dute.
- Errotuluak euskaraz idatziko dira, gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, piktograma estandarizatu batez lagundurik ulergarriak direnean edo langileak direnean hartzaile nagusiak.
- Gainontzeko errotuluak eta kartelak (behin-behinekoak zein behin betikoak) bi etelan idatziko dira bi blokeetako ereduari jarraituz. Franklin Gothic Medium tipografia erabiliko da euskaraz eta Franklin Gothic Book gaztelaniaz.



JENDAURREKO EKITALDIAK

- Jendaurreko ekitaldiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.
- Ekitaldia hasteko, bileraren funtzionamenduaren berri emango zaie parte hartzaileei.
- Parte hartzaile guztien ulermena bermatzeko baliabideak erabiliko dira, itzulpen simetrikoa saihesten saiatuta.



SUSTAPENA

- Sustapen kanpainetarako sor daitezkeen bideoak euskaraz izango dira, azpтитuluak gaztelaniaz.
- Webean eskegitzeko sortuz gero, euskarazko eta gaztelaniako bertsioa bana izango dute eta azpтитuluak audioa duen hizkuntza berean izango dira.



SARE SOZIALAK

- Sarea sozialetako kontu bakarrean emango da informazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz, hurrenez hurren, bi mezuen arteko denbora tartea utziz.
- Salbuespen gisa, aldi berean emanez gero, gaztelaniaz eta euskaraz egingo dira, hurrenez hurren.
- Zentroen izenak traola gisa erabiliko dira.



LAN HIZKUNTZA

- KABIAko lankideen arteko harremanak euskaraz izango dira.
- Lan-bileretako ahozko harremanetarako hizkuntza ere euskara izango da, baita langileen prestakuntza saioetako ere.



INFORMATIKA

- Baliabide informatikoak euskaraz erabiliko dira.



LANGILEEN KUDEAKETA

- Pertsonen hautaketa eta kontratazioa prozesuetan hautagaiak aukeratuko du azterketa egiteko hizkuntza; barne prozesuetan, ariketa bat gutxienez euskaraz izango da, 3. edo 4. HE duten lanpostuetan.
- Langile berria sartu aurretik egiaztatua izango du hizkuntza maila. Harrera protokoloa, liburuxka eta ahozko azalpenak euskaraz izango dira. Aurkezpen horien barruan Hizkuntza Berdintasun Kudeatzeko Jarraibidea eta dagozkion irizpide zehatzak azalduko zaizkio.
- Praktikak egitera etor daitezkeen ikasleekin ere irizpide berdinak erabiliko dira.



LANGILEEN HIZKUNTZA HAUTUA

- KABIAk lan egiten duten pertsonen hizkuntza hautua jasoko duen errolda osatuko da. Horren arabera, langileen kudeaketarekin zerikusia duten dokumentuak (nomina, 10T, ...) jasoko ditu langile bakoitzak.
- Edozein unetan alda dezakete hautu hori.
- Era berean, langileek euskaraz zein gaztelaniaz bete ahal izango dituzte pertsonen kudeaketarekin lotutako dokumentuak (es



HORNITZAILE, ALIATU ETA ADMINISTRAZIOAK

- KABIAk irizpide berdinak betetzea eskatuko die bere hornitzaile, aliatu eta administrazioei. Lankidetzan aritzen diren pertsonen gaitasun erroldak osatuko ditu, harreman-hizkuntza zehazteko.
- Hornitzaileen kasuan, kontratuetan ezarriko diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera izango dute, eta finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena KABIAk egingo du.

HELBURUA LORTZEKO IBILBIDEA EGITEN

KABIAko langile guztien ulermena bermatu artean, **behin-behineko neurri bereziak eta salbuespenak** adostuko dira kasuan kasu, besteak beste:

- Langile elebidunek ikurra eramango dute.
- Ulermen gaitasun apala duten langileek elkarrizketa elebidunak sustatuko dituzte. Ez dituzte euskal hiztunak gaztelaniaz aritzera behartuko.
- Lana oso espezializatua edo/eta partaideen artean ordezkia ezina den pertsona bat dagoenean, langileen bilerak nagusiki gaztelaniaz egingo dira. Atalen bat behintzat euskaraz garatuko da.
- Informazioa jasoko duten pertsona guztiek ulertu dutela bermatzeko neurriak hartuko dira, adibidez: langile guztiei zuzenduta dauden mezuak, euskaraz eta gaztelaniaz izango dira; bileretan erabiliko diren dokumentuei erantsita gaztelaniazko laburpenak banatuko dira, ahozko azalpen berezia gaztelaniaz dokumentuan jasota dagoena ulertzeko, gaztelaniara itzuli bere osotasunean...
- Euskarazko prestakuntza saioen gaztelaniazko bertsioak izan daitezke. Gaztelaniaz bakarrik izango dira emailaren ezaugarriengatik bermatu ezin direnak.
- Euskaraz idazteko zailtasuna izan dezaketen langileak salbuetsita egon daitezke eta baliabide informatikoen gaztelaniako bertsioa jartzea ere eska dezakete.
- Zentro bakoitzaren gaitasun mapa osatu eta eguneratuko da urtero, prestakuntza beharrak identifikatuko dira eta prestakuntza plana diseinatuko da, Aldundiaren araudian eta IVAPen eskaintzan oinarrituta. Ikasketa prozesua azkartzeko eta lanarekin lotzeko ekimenak antolatuko dira.

Hauek lortzeko egingo den bidea desberdina izango da erakunde honetako zentro eta pertsona bakoitzarentzat, guztiak ez direlako abiapuntu berdinetik hasiko. Dena den, KABIA osatzen dugun pertsona guztion ardura da hizkuntza berdintasuna eta hizkuntza eskubideak bermatzea. Hizkuntza lidergoa lantzeko formazio ibilbide bat zehaztuta dago langile guztientzat eta kontuan izango da ardura postuak betetzerakoan.

KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA

KABIAko zuzendaritza taldeak izango du ardura nagusia; Antolakuntza, berrikuntza eta IKT arloa arduratuko da planaren dinamizazioaz, eta zentroetako Koordinazio taldeek planifikatuko dituzte dagozkien ekintzak.

Jarraipena eta ebaluazioa honela egingo da:

- Sei hilean behin, aurrerapena neurtu.
- Urtea behin, autoebalatu, gaitasunen mapa gaurkotu eta hornitzaileen jarraipena egin.
- Bi urtean behin, asebetetze inkesta erabiltzaileei.
- Lau urtean behin, KABIA osoa aurkeztu Bikain ziurtagiriaren ebaluaziora.
- Jarraibide honen eguneratzeak bi urtean behin egingo dira eta horien berri emango zaie zentro guztietako langileei eta KABIAri zerbitzua ematen dieten enpresei.

Jarraibidea publikoa izango da eta KABIAren Webgunean eskegiko da.